



# Hitzen mailegutza

Hitzen mailegutza lexiko-sorkuntzarako bide bat da, eta hizkuntza batek beste hizkuntza batetik unitate lexikoren bat (hitz bat) bereganatzen duenean gertatzen da. Oro har, hizkuntza guztiek baliatu izan dute inoiz bide hori lexiko-beharrei erantzuteko (eta gaur egun ere baliatzen dute).



**Euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, baditu hitz mailegatuak bere lexiko-ondarean, aspaldikoak eta ondo asko errotuak.**

*abendu, aingeru, alkandora, alkate, amodio, arima, abade, apaiz, apostolu, arraza, arrazoi, azoka, bake, balio, barkatu, berba, bekatu, bertso, bedeinkatu, birjina, bertute, borondate, dohain, damu, dantza, deabru, denbora, diru, eliza, errege, erregina, erlijio, eskola, espiritu/izpiritu, ezkila, familia, fede, finkatu, fruitu, gorputz, gramatika, grazia, gura, gutun, imajina, imitazio, infernu, inguru, jende, joko, kafe, kaier, kanpai, kanpo, kanta, kantatu, karitate, kolore, komunio, kontra, liburu, lege, lore, luma, meza, modu, moldatu, molde, mundu, obeditu, olgeta, paradisu, partitu, pentsamendu, pentsatu, sakramentu, santu/saindu, seinale, testamentu, umil, zaku, zapata, zentzu, zeru, zopa...*



Hitz mailegatuak (lehengoak eta oraingoak), oro har, euskararen ezaugarri morfologiko eta fonologikoetara egokiturik daude, arau batzuk aplikatuta. Mailegu batzuek, hala ere, jatorrizko formari eusten diote.

- curriculum (\*kurrikulum)
- corpus (\*korpor)
- campus (\*kanpus)
- ratio (\*erratio)
- rafting
- lifting
- robot (\*errobot)
- robotika (\*errobotika)
- radar (\*erradar)
- ...



Euskara bi hizkuntzaren eraginpean dago (frantsesa eta gaztelania), eta, zenbaitetan, hizkuntza batetik sorturiko mailegua ez dator bat, formari dagokionez, beste hizkuntzatik sortuarekin (*laberinto* ala *labirinto*?). Halakoetan, forma bat edo bestea aukeratzeko irizpidea formaren nazioartekotasuna da.

- eu: **labirinto**
  - es: **laberinto**
  - fr: **labyrinthe**
  - en: **labyrinth**
  - pt: **labirinto**
- eu: **orkestra**
  - es: **orquesta**
  - fr: **orchestre**
  - en: **orchestra**
  - pt: **orquestra**
- eu: **krokodilo**
  - es: **cocodrilo**
  - fr: **crocodile**
  - en: **crocodile**
  - pt: **crocodilo**
- eu: **pneumatiko**
  - es: **neumático**
  - fr: **pneumatique**
  - en: **pneumatic**
  - pt: **pneumático**

Irakurri *Hiztegi Batuan Argibideak* atala.



Nazioartekotasun-irizpidea erabiltzen da, halaber, erreferente bererako bi mailegu ditugunean, bata frantsesetik eta bestea gaztelaniatik hartuak.

- eu: operazio-gela; ebakuntza-gela
- es: quirófano
- fr: salle d'opération
- en: operating room
- pt: sala de cirurgia

## Egokitzapen-arau eta -irizpide batzuk

• *r-* +bokala → *err-* (hitzaren hasieran)

- *err*radioaktibitate, *er*reakzio, *er*resistentzia, *er*rotazio, *err*radial, *er*reaktore, *err*radikal, *er*regulazio...

Baina hitzaren hasieran egon ezean, honela:

- *kor*relazio (\**koer*lazio), *mutar*rotazio (\**mutaer*rotazio), *monor*reduktore (\**monoer*reduktore), *autor*regulazio (\**autoer*regulazio), *autor*retratu (\**autoer*retratu)...

Arau hau ez da betetzen sigletan, izen berezietan eta mailegu irentsigabeetan (*radon*, *reflex*, *raglan*, *ranking*, *rally*...)

## Egokitzapen-arau eta -irizpide batzuk

- **-s** (hitzaren bukaeran)
  - Galdu egiten da bukaerako **-s** hori (**neurosis** > **neurosi**)
    - **tiroide**, **metropoli**, **akropoli**, **analisi**, **paralisi**, **tuberkulosi**...
  - **Salbuespenak**:
    - **-itis** bukaera:
      - **amigdalitis**, **apendizitis**, **artritis**, **meningitis**, **bronkitis**...
    - **-us** bukaera (latinezko hitzetan):
      - **numerus clausus**, **numerus apertus**, **estatus**...
    - Silaba bateko edo biko hitzak:
      - **atlas**, **iris**, **dermis**, **kosmos**...
      - ✓ **-sis** bukaeradunak izan ezik:
        - **dosi**, **krisi**, **gnosi**, **lisi**, **oasi**, **tesi**, **tisi**...
    - Izen bereziak:
      - **Akiles**, **Aristoteles**, **Arkimedes**, **Agis**, **Euklides**...

## Egokitzapen-arau eta -irizpide batzuk

- **-a** (hitzaren bukaeran)
  - Hitz mailegatuak, oro har, eutsi egiten dio bukaerako **-a** horri (**energía** > **energia**):
    - **erreferentzia**, **agentzia**, **simetria**, **erresistentzia**...
- **-ar** bukaera → **-ar** [**glaciar** → **glaziar** (**\*glaziare**)]
  - **eskalar** (**\*eskalare**), **kapilar** (**\*kapilare**), **militar**, **nuklear**...

OHARRA: izena izan adjektiboa izan, hitz mailegatuak **-ar** bukaerari eusten dio.

- haran glaziarra (*glaziar* adjektiboa)
- Pirinioetako glaziarrak (*glaziar* izena) [**\*Pirinioetako glaziareak**]





## Egokitzapen-arau eta -irizpide batzuk

- *-or* (*-dor*, *-tor*, *-sor*) bukaerak → *-ore* (factor → faktore)

- bektore, tentsore, errektore, autore, aktore, errotore, gestore...

- Ekuadore/ekuatore

- ✓ *ecuador* (terminoa) › ekuat**ore**

- en: equator

- fr: équateur

- Lurrarren ekuat**orea** (\*Lurraren ekuad**orea**)

- ekuat**ore** magnetikoa

- zeru-ekuat**orea**

- ✓ Ecuador (herria) › Ekuad**or**

- Ikus [Euskaltzaindiaren Hiztegia](#): *abiadore* eta *bekatore*.

## Egokitzapen-arau eta -irizpide batzuk

- *-mento* bukaerak → *-mentu* [*apartamento* → *apartamentu*]

- |                                |                     |
|--------------------------------|---------------------|
| ○ <i>argumentu</i>             | ○ <i>fundamentu</i> |
| ○ <i>alimentu</i> <sup>1</sup> | ○ <i>monumentu</i>  |
| ○ <i>armamentu</i>             | ○ <i>sedimentu</i>  |
| ○ <i>dokumentu</i>             | ○ <i>segmentu</i>   |
| ○ <i>elementu</i>              | ○ <i>tegumentu</i>  |
| ○ <i>estamentu</i>             | ○ <i>zementu</i>    |
|                                | ○ ...               |

- (1) *Euskaltzaindiaren Hiztegia*
  - **alimentu** iz. *Heg. Beh.*



## Egokitzapen-arau eta -irizpide batzuk

- *-ienso, -iento, -ierno, -ierto, -iesto* → *-entsu, -entu, -ernu, -ertu, -estu*

[*pienso* > *pentsu*]

- *intsentsu, asentu, erregimentu, eskarmentu, gobernu...*

*-entu / -endu*

Aditzetik eratorritako izenek *-endu* atzizkia hartu ohi dute, eta ez *-entu* atzizkia:

- *isola(tu)* > *isolamendu* (*\*isolamentu*)
- *aklopa(tu)* > *akoplamendu* (*\*akoplamentu*)
- *finantza(tu)* > *finantzamendu* (*\*finantzamentu*)
- *funtziona(tu)* > *funtzionamendu* (*\*funtzionamentu*)
- *entrena(tu)* > *entrenamendu* (*\*entrenamentu*)
- *entretene(tu)* > *entretenimendu* (*\*entretenimentu*)
- *senti(tu)* > *sentimendu* (*\*sentimentu*)
- ...

## Egokitzapen-arau eta -irizpide batzuk

- **-nm-** → **-mm-** [**inmune** → **immune**]

- *gamma, immunitate (autoimmunitate), immanente, immaterial, immigrante, immobilismo, immolazio, kommozio, kommutadore... (\*inmune, \*ganma, \*inmanente...)*

- **-sc-, -xc-** eta **-zc-** kontsonante-bilkurak [**-sc-** → **-sz-**]

- *adoleszentszia, adoleszente<sup>1</sup>, akreszente, aszesi, aszetiko, isoszele, bioluminiszentszia, deszifratu, fluoreszente, plebiszitu...*

Salbuespenak: *diziplina (\*disziplina), dizipulu (\*diszipulu)* eta haietatik etorritako izen eta aditz guztiak (*autodiziplina*).

(1) *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* nerabezaro eta nerabe hobesten ditu.



## Egokitzapen-arau eta -irizpide batzuk

- **-x** + kontsonantea  $\longrightarrow$  **-s** + kontsonantea [**texto**  $\longrightarrow$  **testu**]
- *esportazio, eszentriko, eszipiente, eskrezentzia, esfoliagarri, espektorazio, espedizio, esperimentu, esponontzial, destrina, destrosa, estasi...*

Alegia, X kontsonantea S bihurtzen da, haren ostean kontsonante bat badago.

### Salbuespena

X-ren aurreko kontsonantea h denean:

- *exhibizionista, exhibizionismo* eta (Elhuyar) *oxidriko*